



Hamalau eta hamasei urte bitarteko urretxuarrez osatuta dago gazte mahaia. Irudian, mahaikideetako batzuk. URRETXUKO UDALA

Piztu Gazte Mahaia Urretxun

Urrian hasi da lanean, berriro ere, Piztu Gazte Mahaia, 2021ean sortutako nerabeen partehartze organo egonkorra

Urretxuko Udalak iaz jarri zuen martxan Piztu Gazte mahaia, JM Iparagirre institutuarekin, LaSalle Legazpirekin eta Urretxu-Zumarraga Ikastolarekin lankidetzan, eta 3. eta 4. DBHko ikasleek osatzen dute berau.

Mahai honen azken helburua Urretxuko Udalaren eta nerabe gazteen arteko harremana sendotzea eta aldatzea da, azken hauen benetako beharrak eza-gutu eta horiei erantzun ahal izateko euren hitza entzutea. Udal ordezkariekin hitz eginda, hauek helarazi digute Gizarte autonomo bat lortzea dela Udalaren nahia, eta gizarte autonomo hori erdiesteko funtsezkoak ikusten dituztela gazteekin eta hurrekin egiten diren esku-hartzeak. Hain zuzen, horregatik egiten dute gizarte eta hezkun-

tza zerbitzuak eskaintzearen aldeko apustua, baita zerbitzu soziokulturalak ere (denak ala denak erantzukizun publikokoak). Horiek aurrera eramateko gazte-

en sektorearen eta komunitatearen arteko parte-hartzea eta ekimena sustatzen da, gazteei protagonismoa emanez.

Horretarako, hilean behin bil-

tzen dira udal ordezkariak – gazteria eta gizarte ekintza sailetakoak – eta hiru ikastetxeetako ikasleen ordezkariak. Mahaia bera, era partehartzailean osatu



Gazte mahaiko kideak, Urretxuko udaletxeko areto nagusian bilduta. URRETXUKO UDALA

zen – aurreko ikasturtean- eta bertan landu beharreko gaiak erabakitzeke filosofia bera jarraitu zen. Ikasturtea hasten denean landu nahi den gaia edo gaiak aukeratzen dira, dinamika batzuen bitartez, eta gero ikasleen ordezkariak bileran jasotakoak helarazten dizkiete gelakideei, bertan lanketak egin ahal izateko.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek osatzen dute Piztu Gazte Mahaia

Helburua udalaren eta gazteen arteko harremana sendotzea eta aldatzea da

teko. Iaz, esaterako, gazteen aisialdia landu zen mahaian eta lanketaren emaitza *nerabeentzako udako programazioa* izan zen, euren gustuko jarduerekin.

Lan-ildo nagusia bat izan arren, puntualki gai desberdinak lantzeko ere erabiltzen da mahaia; gai horiek nerabeek proposatutakoak izan daitezke, edo Udalak mahai gainean jartzen dituenak; dela herrian arazo bat dagoelako, gazteei zuzendutako instalazio berri bat eraikitzen ari direlako eta euren iritzia jaso nahi dutelako,...

Erakundeen lan moldea

Bide batez, gainera, gazteek instituzioak nola funtzionatzeko duen ikusteko aukera dute; Udal barruan dauden departamentuak, lan egiteko modua, trami-teak... eta beharrezkoa denean edo gaiak hala eskatzen badu, Udal teknikariekin biltzeko aukera ere izaten dute: gai baten inguruko zalantzak argitzeko, proposamen konkretuak egiteko eta abar.

Lehen bilera urriaren 7an egin zuten, eta aipatu moduan, asmoa da hilean behin ohiko batzarra egitea. Horrez gain ezohiko batzarra, partehartze prozesuak, tailerrak eta bestelako jarduerak egongo dira; batzuk adin tarte horretako gaztetxoei zuzendutakoak eta beste batzuk publiko zabalagoari. Izan ere, PIZTUren eta mahaiaren atzean dauden erakundearen nahia da filosofia hori, partehartzearena, komunitate osora zabaltzea.